

BESTELAKO XEDAPENAK

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

1905

EBAZPENA, 2022ko apirilaren 21ekoa, Gizarte Zerbitzuen zuzendariarena, zeinaren bitartez jendaurrean jartzen baita Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen errolda sortzeko eta haren funtzionamendua erregulatzeko dekretu-proiektua.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen errolda sortzeko eta haren funtzionamendua erregulatzeko dekretu-proiektua prestatu du, eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen arabera izapidetu behar da.

Lege horretan xedatutakoa betetze aldera, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuak, 2020ko ekainaren 30ean, agindu bat eman zuen, aipatutako dekretu-proiektua prestatzeko prozedurari hasiera emateko. Era berean, 2022ko martxoaren 28an, agindu bat eman zen, dekretu-proiektuaren testua aurrez onartzeko, haren artikulua idatzi ondoren.

Aipatutako 8/2003 Legearen 8.1 artikulua arabera, herritarren eskubide eta interes legitimoiei eragiten dieten xedapen orokorrak jendaurrean jarriko dira, eta gauza bera egingo da xedapenen izaerak hala eskatzen duenean.

Horretarako, Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen errolda sortzeko eta haren funtzionamendua erregulatzeko dekretu-proiektua jendaurrean jartzen da 20 egun baliodunez, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Azaldutako guztiagatik, eta Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2020ko ekainaren 30eko Aginduan (aipatutako dekretu-proiektua prestatzeko prozedurari hasiera ematen diona) xedatutakoarekin bat etorriz, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko urtarrilaren 19ko 12/2021 Dekretuaren 16.a) artikuluari dagokionez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen errolda sortzeko eta haren funtzionamendua erregulatzeko dekretu-proiektua jendaurrean jartzea hogeitun (20) egun baliodunez, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena.– Aurreko apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, eta alegazioak aurkezteko aukera egon dadin, dekretu-proiektuaren edukia eskuragarri egongo da Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, Lakua I eraikina, solairuartea, Vitoria-Gasteiz) eta Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>).

Hirugarrena.– Alegazioak elektronikoki aurkeztu ahal izango dira <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/> helbidean, edo, bestela, aurrez aurre, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, Lakua I eraikina, solairuartea, Vitoria-Gasteiz), bai eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako lekuren batean, eta Gizarte Zerbitzuetako zuzendariari zuzendu beharko zaizkio.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko apirilaren 21a.

Gizarte Zerbitzuen zuzendaria,
MARÍA ANTONIA OLABARRIETA IBARRONDO.